

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AZTEGIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea baratzeak laga eta erabiltzeko modua eta luberrien aprobetxamenduak arautzen dituzten ordenantzei

Kontzeju honek, 2020ko irailaren 24ko bilkuran, hasierako onespena eman zion baratzeak laga eta erabiltzeko modua eta luberrien aprobetxamenduak arautzen dituzten ordenantzak onesteko espedienteari. Jendaurrean egon zen bitartean haren aurka erreklamazioak aurkeztu zirenez gero, alegazioak ebatzi eta behin betiko onetsita geratu dira 2021eko otsailaren 24an egindako bilkuran. Beraz, oso-osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin, Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Luberrien aprobetxamendua arautzen duen ordenantza

1. Xedea

Ordenantza honen xedea da arautzea Aztegieta kontzejuko mendietako luberrien aprobetxamenduak.

Aztegieta kontzejuko mendietako luberrien esleipena, erabilera eta gozamina ordenantza honetan xedatutakoari lotuta egingo da, errespetatuz indarrean dagoen legeriak arlo horretarako ezartzen dituen eskumen mugak, eta bereziki martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko mendienak, xedatutakoa.

2. Betekizunak

Familia unitateak onuradunak izan ahalko dira baldin eta haien titularrak betekizun orokor hauek betetzen badituzte:

a) Adin nagusikoa izatea eta erretiratu ez izatea, adingabe emantzipatua edo legez gaitua izatea, eta nekazaritza lan egitea: norberaren lurra landuta nekazaritza laborantzekin, bakarrik edo titularrarekin bizi diren senideren baten laguntzarekin, soldatapeko langilerik erabili gabe. Betekizun hori ez da ez betetzat joko lan egiten jarraitzea eragozten duen gaixotasunen batengatik edo beste arrazoiren batengatik lan egiten jarraitzea ezinezkoa bada eta ondorioz soldatapeko langile bat edo bi kontratatzen badira.

b) Erroldatuta egotea Nekazaritzako Ustiategien Erregistroetan.

c) Kontzeju erroldan gutxienez urtebeteko antzinasunarekin inskribatuta egotea, nekazari gazteak izan ezik, kasu horretan, ez baita antzinasun eskatuko kontzeju erroldan.

d) Familia unitateko kide guztiek dagozkien auzolanak eginak izatea eta dagozkien kanon eta ordainketak direla-eta zorrik ez izatea.

e) Behar beste makina izatea, jabetzan edo errentan, erregistratutako ustiategiko lana egin ahal izateko.

3. Aurkeztu beharreko agiriak

Onuradun izan nahi dutenek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte esleipenaren bost urteetan zehar.

— Eskatzailearen NANA.

— Kontzejuko erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

- Nekazaritzako ustiategien erregistroan edo abeltzaintzako ustiategien erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.
- Abereen erroldako ziurtagiria.
- Nekazaritzako ustiategiaren azaleraren aitortpena (NPB) eta ustiategiak kudeatzen duen azaleraren zinpeko adierazpena.
- Administrazio desberdinek ustiategiari esleitutako luberrien ziurtagiria.
- Familia unitatearen titularra nagusiki nekazari dela egiaztatzen duen agiria.
- Esleipendunaren eta jarduneko pertsonaren PFEZeko aitortpena, nekazaritzako edo abeltzaintzako diru sarrerak justifikatzen dituen.
- Esleipenduna eta jarduneko pertsona Gizarte Segurantzaren nekazaritzako araubidean daudela justifikatzen duen urteko ziurtagiria.

4. Esleipenak

Luberriak arau hauen bidez esleituko dira:

Esleipen epea amaitu baino bi hilabete lehenago iragarki bat argitaratuko da iragarki taulan, interesa dutenek 15 egun balioduneko epea izan dezaten eskabidea eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko.

Aurkeztutako eskabideak aztertuta eta luberritarako lursailen nekazaritza ahalmenaren arabera, kasuan kasuko loteak finkatuko dira, aurkeztutako eskabideen artean zatituz, betiere kontuan hartuta nagusiki nekazari direnen banakako esleipena ez direnen bikoitza izango dela, eta horietako bat nekazari gazte baten eskaerarako gordeko dela, eta beste bat esleipena indarrean dagoen bitartean egiten den beste eskaera berri baterako, baldin eta 2. artikuluko betekizunak betetzen baditu.

Ez badago nekazari gazte baten eskaerarik, horrentzat gordetako lotea eta bizilagun berrientzat gordetako lotea gainerako eskatzaileen artean banatuko dira, behin-behinean nagusiki nekazari izan ala ez dagokion proportzioan, eta berehala itzuliko da erreserba-gai diren eskaeretako bat gertatzen bada.

Aztegietako Kontzejua ez da inola ere esleipenari lotutako jarduerak gauzatzearen ondorioz sor daitezkeen kalte-galeren erantzule izango.

5. Aprobetxamenduaren iraupena

Aprobetxamenduaren esleipenaren gehieneko iraupena 5 luzagarri izango da luberritze baldintzak betetzen diren bitartean.

Urtero, esleipenak berrikusiko dira, gerta daitezkeen ez-betetzeen arabera, nekazari gazteek edo bizilagun berriek egindako eskaerak alde batera utzita.

6. Luberrien onuradunek ordaindu beharreko kuotak

Mendien arloan Arabako Foru Aldundian eskumena duen sailak finkatuko du, luberritza baimentzean, urteko zenbateko kanona ordaindu behar dion esleipendunak kontzeju honi.

7. Luberrien eskualdaketa

Esleipenak pertsonalak dira, esleipendunari eginak, esleipeneko baldintzak betetzen dituen bitarterako; hirugarrenei ezin zaizkie eskualdatu, baina, onuraduna hil edo erretiratuz gero, baimentzen da eskubidea subrogatzea familia unitateko beste edozein kideri.

Subrogazioa eskatzen duten guztiek luberriaren onuradunentzako ezarrita dauden baldintzak bete beharko dituzte.

8. Nekazari gazteak

Nekazari gaztearen izaera duen eskatzaile bakarria badago, eta ordenantza honetan adierazitako baldintzak betetzen baditu, horretarako gordetako luberria esleituko zaio.

9. Luberri emakidak iraungitzea

1. Luberri emakidaren banakako esleipena hurrengo arrazoietako edozeinengatik iraungiko da:

a) Esleipenduna hiltzea edo hori emateko eskatzen ziren eskakizunak jada ez betetzea, ondorengorik gabe.

b) Luberria urtebetez edo gehiagoz abandonatzea.

c) Baimendutako azalera hedatzea edo ezarritako kanona ez ordaintzea.

d) Luberritzearen laborantzan nekazaritzako jardunbide egokiei buruz indarrean dauden kodeak ez errespetatzea edo ezpondetako edo zuhaitzetako landaredian kalteak eragitea, baita ere mugakideetan.

e) Esleitutako loteak hirugarrenei erabat edo zati batean azpiesleitzea.

f) Ez betetzea luberritzearen emakida arautzen duten betebeharretakoren bat.

2. Kontzejuak adieraziko du esleipena iraungi dela, aldez aurretik onuradunari edo haren ondorengoei entzunaldia emateko espedientea izapidetuta, eta berreskuratu egingo da luberrien jabetza, aurkez daitezkeen administrazioarekiko auzi errekurtsioen kalterik gabe.

3. Kontzejuaren onurarako izango dira luberritzean egindako inbertsioak eta hobekuntzak.

Baratzen lagapena eta erabilera arautzen duen ordenantza

Aztegietako Kontzejuaren nahia da kontzejuko auzotarren esku jartzea udalaren lurzati jakin batzuk, aisialdiko baratze gisa erabiltzeko. Lurzatiak norberaren kontsumorako bakarrik landuko dira, eta etxeko erabilerarako ematen dira; hortaz, debekatuta dago bertan lortutako produktuak merkaturatzea.

Ordenantza honen xedea da udal lurzoru jakin batzuk erabiltzea eta haien balioa nabarmentzea.

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da xedapenak ezartzea Aztegiako Kontzejuko baratzeak nola laga eta erabili behar diren arautzeko. Ordenantzaren xedapenek erabiltzaileak nahiz kontzejua bera behartzen dituzte.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza hau Aztegiako Kontzejuaren jabetzako lurzoru guztiei aplikatzen zaie, aisialdiko baratze gisa behin-behinean erabiliko badira.

3. artikulua. Eskumenak eta zaintza

1. Aztegiako Kontzejuari dagokio ordenantza honek ukitutako kontzeju jabetzako lurren erabilera zuzena zaintzeko eta zehatzeko eginkizun teknikoak betetzea.

2. Funtzio teknikoaren barruan sartuko da baratzeak antolatzeako proiektuak egitea eta/edo onestea, bai eta ortuak eta horiei lotutako azpiegiturak kontserbatu, konpondu eta mantentzea ere.

3. Kontzejuak horretarako ezarritako langileek eta bitartekoek zainduko dute araudia betetzen dela.

4. Zaintzaren ardura dutenek egiten diren arau hausteak salatu ditzakete, bai eta arau haustea, ezagunak badira, identifikatu eta arau hausteari buruzko datuak hartu ere.

4. artikulua. Lagatzeko eta aprobetxatzeko epea

Udal baratzeak lagatzeko eta erabiltzeko epea urtebetekoa izango da. Epe hori amaitzen denean beste lagapen bat eskatu ahal izango da.

5. artikulua. Baratzeen deskripzioa

Aztegietako Kontzejuak auzokoen eskura jartzen dituen baratzeek Gasteizko Udalaren katas-troko 3. poligonoko 451. lurzatiaren zati bat hartzen dute.

Baratze bakoitzak 200 m² inguruko azalera erabilgarria izango du. Hasiera batean 20 baratze izango dira. Zona amankomunak ere mugatu eta markatuko dira eta ezin izango dira ordenantza honetan baimendutako erabilerak baino gehiago egin, hau da, baratze bakoitzerako sarrera eta ibilgailuak aparkatzea.

6. artikulua. Betekizunak

1. Pertsona fisikoa eta adin nagusikoa izatea.
2. Inskribatuta egotea kontzejuko biztanleen erroldan, gutxienez urtebete lehenagotik.
3. Baratzezaintzarako erabiltzen den edo erabil daitekeen lurrik ez edukitzea, ez jabetzan ez errentan.
4. Bizikidetzaren unitate bakoitzeko pertsona bakar bat izan daiteke emakidadun.
5. Emakidadun bakoitza baratze bakar baten emakidadun izan daiteke.
6. Emakidadunek egunean eduki beharko dituzte kontzejuari egin beharreko ordainketak.

7. artikulua. Dokumentazioa

Baratze sozial bat eskatu nahi dutenek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1. Nortasuna frogatzeko agiria: NANA, pasaporte edo bizileku txartela.
2. Ofizioz egiaztatuko da eskatzailea kontzejuko erroldaren barruan dagoela. Lagapenak dirauen bitartean erroldatuta egon beharko du etenik gabe.

8. artikulua. Baratzeen erabileraren eta gozamenaren lagapena

1. Administrazio batzarrak emango dio hasiera esleipen prozedurari, iragarkia argitaratuz iragarki taulan.
2. Parte hartzeko, 7. artikuluan adierazitako eskabidea bete eta gainerako agiriekin batera aurkeztu beharko da.
3. Honela egingo da esleipena:
 - a. Eskaera aurkezten duten pertsonen artean, lurzatiaren esleipena eta banaketa zozketa pu-blikoaren bidez egingo da.
 - b. Eskabideak lursailak baino gehiago izanez gero, izangaien poltsa sortuko da. Izangaiak zozketan suertatzen den hurrenkeran egingo dira poltsa horretan.
 - c. Lagapenaren iraunaldian zehar lagapen hartzailearen batek huts egiten bada, hutsik utzitako baratzea poltsako lehenengo pertsonari esleituko zaio. Hori emakidaren iraunaldiaren lehenengo erdian gertatuz gero, emakidadun berria hasierako emakidadunekin parekatuko da; eta bigarren erdian gertatuz gero, emakidadun berria itxarote poltsako kidetzat joko da.
 - d. Emakidaren iraunaldian zehar eskaera gehiago aurkezten badira, baratzeetako bat eman ahal izango zaie, baratzeren bat hutsik egonez gero; edo, hala ez bada, poltsan inskribatuko dira, azken lekuan. Inskripzio hori emakidaren iraunaldiaren lehen erdian bakarrik egingo da.

e. Emakidaren iraunaldia amaitutakoan, lehenengo eta behin poltsan daudenei esleituko zaizkie baratzeak, oraindik baratzerik nahi baldin badute, eta poltsa horretan ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio. Inskribatu berrientzat, aldiz, jendaurreko zozketa egingo da.

6. Lursailak errejidore-lehendakariaren dekretu bidez esleituko dira, egindako esleipen prozesua oinarri hartuta.

9. artikulua. Emakidaren ezaugarriak

1. Baratzeen lagapenaren xedea da herritarrek modu pribatiboan erabili eta gozatzea baratzeok, eskusibotasunez, eta ordenantza honetan nahiz organo eskudunek onartutako gainerako arau eta erabakietan xedatutakoa betez, betiere.

2. Baratzeen erabilera prekarioan lagako da. Beraz, kontzejuak noiznahi erabaki ahal izango du emandako erabilera baimena errebokatzea, eta, hala egiten badu, lagapen hartzaileak bertan behera utzi beharko ditu bai lursailaren erabilera bai bertan egindako jarduerak, eta ez du eskubiderik izango inolako kalte ordain edo diru konpentsaziorik jasotzeko inongo kontzepturengatik.

3. Baratze bakoitza pertsona bati lagako zaio, eta pertsona horrek berak erabili beharko du. Debekatuta edukiko du baratze osoa edo zati bat partekatu, laga edo azpierretratzea. Beste pertsona batzuei lurzattia erabili edo mantentzeko aukera emango zaie, soilik kontzejuak aurretiaz justifikatu eta baimentzen dituen kasuetan, lurzattiaren titularrak eta odolkidetasuneko lehen mailako senideek eskatuta. Era berean, emakidaren titulartasuna ezingo zaie hirugarrenei eskualdatu. Zuzenean kontzejuari itzuli beharko zaio.

4. Titularra hiltzen bada, emakida azkendu egingo da eta haren oinordekoek ez dute inolako eskubiderik izango. Kontzejuak ikusten badu zendutako pertsona horrek ondo kudeatu duela baratzea, alargunak jaso ahal izango ditu baratzearen erabilera eta gozamina, horretarako eskaera eginez gero, eta, betiere, kontzejuak ontzat ematen badu.

10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

1. Baratzea nekazaritzarako soilik erabiliko da, eta nekazaritza ekologikoaren printzipioen arabera landuko da (ikus Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamendua, 2007ko ekainaren 28koa, produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketei buruzkoa). Debekatuta dago, beraz, herbizida, pestizida eta ongari sintetikoak eta hazi zein landare transgenikoak erabiltzea.

2. Esleipendunak ezingo du bere ekimenez inbertsiorik egin. Ez da onartuko instalazioetatik kanpoko elementurik ekartzea, hala nola bidoiak, bainuontziak, eserlekuak, kutxak eta negutegiak.

3. Emakidadunaren betebeharra izango da baratzea lantzearekin zerikusia duten jarduera guztiak behar den garaian egitea. Beraz, justifikatu gabeko arrazoiengatik baratzea utzita dagoela antzematen bada, esleipendunak hura erabiltzeko eskubidea galduko du.

4. Aztegiatiko Kontzejuak ez du erantzukizunik izango lagapen hartzailearen batek edo beste edonork istripuren bat izaten badu edo lursailen erabileraren ondorioz hirugarrenei kalte egiten bazaie.

5. Lagapen hartzaileak nahitaez bete behar du lursailari eta laboreei eragin diezaiekeen araudi sektorial guztia, eta, bereziki, urei buruzko araudia.

11. artikulua. Fidantza

Emakidadunak hasierako fidantza ordaindu beharko du, 10 eurokoa. Fidantza horren bidez emakidadunak erakutsiko du konpromiso pertsonala hartzen duela bere eginbehar eta obligazioak betetzeko.

Emakidadunak baratzea lantzen ez jarraitzeko borondatea adierazten duen unean, fidantza itzuliko zaio, baldin eta inolako arau hausterik egin ez badu eta baratzea behar bezalako egoerara uzten badu.

12. artikulua. Prezioa

Emakidadunak urtero 5 euroko kuota ordaindu beharko du. Kuotaren zenbatekoa urtero ezarriko da zerga ordenantzen bidez.

13. artikulua. Funtzionamendu arauak

1. Kontzejuak ez du erantzukizunik izango baratzeetan eta produktuetan gerta daitezkeen kalte, lapurreta edo narriadurengatik. Zaintzaren erantzukizunik ere ez du bere gain hartuko.

2. Baratzeetan sasoian sasoiko landareen laborantza baino ez da baimenduko. Beraz, ez da onartuko ez berotegirik ez urte anitzeko espezierik (esate baterako, zuhaitzak eta zuhaixkak). Era berean, ez da onartuko abereen hazkuntza, ez eta legez debekatuta dauden espezieak erein edo landatzea ere.

3. Baratzean ekoizten diren produktuak norberaren kontsumorako izango dira. Beraz, ez da baimentzen haien salmenta. Trukea salbuesten da.

4. Beti errespetatu beharko da baratze bakoitzaren muga, kontzejuak ezarritakoa. Baratzeak irekita egongo dira, ezingo da haien arteko itxiturarik egin hesolekin edo bestelako elementuekin, kontzejuak berariaz baimena eman ezean.

5. Ez da onartuko baratzeen barrutian etxeko animaliarik egotea.

6. Baratzeen barrutia pertsonen arteko topaketarako, gizarteratzeko eta harremanetarako lekua izan behar da. Emakidaduna senide edo lagunen batek lagunduta joan daiteke baratzerara.

Proiektuaren xede integratzailea ez desitxuratzeko, ordea, ezingo dira instalazioak monopolizatu helburu erabat pertsonaletarako, adibidez, barbakoak edo familia bilerak egiteko. Beraz, debekatuta dago sua egitea, ezta sasiak erretzeko ere.

7. Oinez baino ezingo da sartu baratzeen barrutira. Debekatuta dago edozein motatako ibilgailuak sartzea.

8. Baratzeetako lan ordutegia egunekoa izango da beti. Eguzkia sartzen denetik hurrengo goizera arte barrutia itxita egongo da.

9. Guztiz debekatuta dago edozein motatako eraikuntzak edo eraikinak eraikitzea edo instalatzea, batez ere "txabolak" motakoak, salbu eta zenbait erabiltzailek partekatzen dituzten lanabes etxolak, eguraldiaz babesteko, Gasteizko Udaleko gainerako udal baratzeetan erabilitakoen tankeran. Horiek eginez gero, salatu egingo dira, eta arau hausleak automatikoki galduko du lagapena, entzunaldia egin ondoren.

14. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Ordenantza honetan aurreikusitakoaren kontra doazen ekintza edo hutsuneek administrazioaren erantzukizuna sortuko dute, bide penalean, zibilean edo bestelakoetan eska litekeenari kalterik eragin gabe.

Emakidadunen arau hausteek honako zehapen hauek izango dituzte:

– Arau hauste arinengatik 10 eta 50 euro bitarteko isuna ezarriko da. Urtebetean bost (5) arau hauste arin egitea emakida suntsiarazteko arrazoia izango da.

– Arau hauste larriengatik 51 eta 150 euro bitarteko isuna ezarriko da. Urtebetean hiru (3) arau hauste larri egitea emakida suntsiarazteko arrazoia izango da.

– Arau hauste oso larriengatik 151 eta 300 euro bitarteko isuna ezarriko da eta emakida suntsiarazi egingo da.

Kontzejuak urtero eguneratuko du zehapenen zenbatekoa, aurreko urte naturaleko kontsumoko prezioen indizearen aldakuntzaren arabera.

Zehapenak ezartzea bateragarria izango da arau hausleari aldatu duen egoera lehengoratzeko eskatzearekin eta, halaber, eragin dituen kalte eta galeren ordaina eskatzearekin.

A. Honako hauek arau hauste arintzat joko dira:

- Aztegietako Kontzejuko erroldan egoteari uztea.
- Esleitutako lursaila eta bertako sarbideak ez mantentzea, eta lursailean edozein itxitura jartzea.
- Instalazioen barruan ibilgailuan ibiltzea, eta baimendu gabeko lekuetan ibilgailuak aparkatzea.

– Ez betetzea nekazaritza ekologikoaren printzipioak, 834/2007 (EE) Erregelamenduan jasoak.

– Instalazioetan kanpoko elementuak sartzea.

– Kontzejuak izendatutako arduradunaren jarraibideak ez errespetatzea.

B. Honako hauek arau hauste larritzat joko dira:

– Kontzejuaren ondasunak ostea edo baratzeetako instalazio komunetan kalteak eragitea, balioa 500 eurotik gorakoa ez denean.

– Edozein arau hauste arin errepikatzea.

C. Honako hauek arau hauste oso larritzat joko dira:

– Landare psikotropikoak, kanabisa edo antzekoak landatzea edo horrelakoen laborantzan jardutea.

– Kontzejuaren ondasunak ostea edo baratzeetako instalazio komunetan kalteak eragitea, balioa 500 eurotik gorakoa denean.

– Kontzejuak emakida errebokatzea erabakiz gero, lagatutako lursaila ez uztea horretarako ezarritako epean.

– Baratzearen erabilera eskualdatzea edo lagatzea.

– Edozein arau hauste larri errepikatzea.

– Debekatuta dauden eraikuntzak edo instalazioak egitea.

15. artikulua. Zehatzeko prozedura

Erantzukizun administratiboa eskatu ahal izango da, honako xedapen hauetan ezarritako arau eta printzipioei eta prozedurari jarraituz: urriaren 1eko 39/2015 Legea, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearena, eta otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenarena.

16. artikulua. Lagapena azkentzea eta betetzea

1. Honako hauek izango dira lagapenak hutsaltzeko arrazoiak:

a. Urtebetean 5 arau hauste arin edo 3 arau hauste larri edo arau hauste oso larri bat egitea.

b. Lagapenerako funtsezko betekizunetako baten bat galtzea.

c. Lagapen hartzailearen heriotza edo ezintasuna.

d. Lagapen hartzaileak berariaz uko egitea.

e. Lagapenaren urteko tasa ez ordaintzea.

2. Lagapena a) eta b) letretan ezarritako arrazoiengatik azkentzen denean, emakidadunak galdu egingo ditu hasierako fidantza eta bildu gabeko barazkien gaineko eskubideak. Barazki horiek lursailaren jabearen esku geratuko dira, eta emakidadunak ezingo du horregatik inolako kalte ordainik eskatu.

Azken xedapena

Ordenantza hauek ALHAOn argitaratu eta handik hamabost egunera jarriko dira indarrean, eta hala iraungo dute harik eta kontzejuak aldatzea edo indargabetzea erabakitzen duen arte.

Aztegieta, 2021eko martxoaren 8a

Lehendakaria

RAMÓN FERNÁNDEZ DE LUCO DÍAZ DE ARGANDOÑA